

## BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

6438

*EBAZPENA, 2021eko abenduaren 9koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria-rena, zeinaren bidez argitara ematen baita «Jesús María Leizaola» sariaren 2021eko ekitaldiari dagokion epaimahaiaren epaitza. Saria hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanei ematen zaie, eta horien xedea izan behar da euskal autonomia, euskal autogobernua edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua, edo/eta globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren erronken edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa.*

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendari nagusiaren 2021eko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez (abuztuaren 16ko EHAA, 162 zk.), deialdia egin zen «Jesús María Leizaola» sariaren 2021eko ekitaldirako, hainbat aztertze eta ikerkuntza ikuspuntutatik egindako monografia izaera duten ikerlanetarako. Ikerlan horien xedea izan behar da euskal autonomia, euskal autogobernua edo Euskadiko Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendua, edo/eta globalizazioaren, eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren erronken edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten beste erronka batzuen gobernantza publikoa. Ebazpenarekin bat etorriz, eta Epaimahaiak bildu eta ebazpena eman ondoren, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea «Jesús María Leizaola» sariaren 2021eko ekitaldirako epaimahaiaren epaitza. Honako hau da:

1.– 2021eko ekitaldirako «Jesús María Leizaola» saria José Ramón Bengoetxea Caballero jaunak aurkeztutako lan honi ematea: «Diálogos judiciales y autogobierno. Estudio socio-jurídico sobre un epifenómeno de la justicia en Euskadi, en España y en Europa».

2.– 2021eko ekitaldirako «Jesús María Leizaola» sariaren akzesita Aizbea Atela Uriarte andreak aurkeztutako lan honi ematea: «El desafío del fortalecimiento de la autonomía municipal: la Ley de Instituciones Locales de Euskadi».

Bigarrena.– Ebazpen hori interesdunei jakinaraztea.

Hirugarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendari nagusiaren ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera. Horretarako, hilabete bat izango da, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsu hori ebazpena eman zuen organoari aurkez dakioko edo, bestela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua jarri zenetik hiru hilabete igarota erantzuna ematen ez bazaio, errekurtsua gaitzetsizat jo daiteke, eta administrazioarekiko auzien bidera joateko aukera irekita egongo da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 9a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendaria,  
EGOITZ LABURU RODRIGUEZ.